



IRURAKO
gizarte
zerbitzuen
GIDA



Irurako
udala

Giza eskubideak

Irurarrak gara



BERDINTASUNA

ITXAROPENA

DUINTASUNA

ESKUBIDEAK

BAKEA

ONURA

JUSTIZIA

ASKATASUNA

BIZITZA

SEGURTASUNA

TRATU EGOKIA

LEGE-BABESA

INTIMITATEA

BIZI-KALITATEA



*Gehienok dugu
gure bizitzaren uneren batean
gizarte zerbitzuetara
joateko beharra.*

NORA JOAN BEHAR DUGU?
ZER AURKITUKO DUGU?



NON

Irurako gizarte zerbitzuak

Irurako Udala
San Migel plaza 1
20271 IRURA



HITZORDUA

Aldez aurretik
ordua eskatu
behar da,
telefonoz.

Harrera bulegoa
943 69 13 33



ORDUTEGIA

Astearte eta
ostegunetan,
09:30etik 14:00etara.

Aurkibidea

GIZARTE ZERBITZUAK	5
LAGUNTZAK	6
MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK	8
DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK	10
FAMILIAK, HAURRAK ETA NERABEAK	11
HIRUGARREN ADINA	12
GENERO-INDARKERIA JASATEN DUTEN EMAKUMEAK	13
MIGRAZIOA	14
ELKARTE SOZIALAK ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZA	14

Gizarte zerbitzuak

Herritar guztientzako udal-zerbitzuak dira: mendekotasuna dutenentzat, desgaitasunen bat dutenentzat, familia, haur eta nerabeentzat, hirugarren adinarentzat, genero indarkeria jasaten duten emakumeentzat... Zerbitzu hauen helburu nagusietako bat bazterkeria egoerak ekiditea da.

Udalek, Diputazioak eta Jaurlearitzak osatzen dute gizarte zerbitzuetako sistema eta bakoitzak duen arduraren arabera hartzen du parte.

Funtzioak:

Gizarte-eskubide eta baliabideen eskaerak

artatu

baloratu

diagnostikatu

esku hartu

Gizarte zerbitzuak sistemako prestazio eta zerbitzuak bideratu.



Laguntzak

EGOERA EKONOMIKOAREN ARABERAKO LAGUNTZAK

- Gizarte larrialdietarako laguntzak – gastu eta behar zehatzetarako laguntzak.
- Elikagaien bankua.
- Uraren eta zaborren zergak ordaintzeko laguntzak.
- *Goiza pasan* eta haur eta nerabeen ekintzetan hobariak, egoera ekonomiko ahulean dauden familientzat.
- Beherapenak udal-zerbitzuetan: udako aisialdia, ikastaroak...
- Eskola-irteerak egin ahal izateko laguntzak.
- Haurreskolako kuota ordaintzeko laguntzak.

BESTELAKO LAGUNTZAK

- Euskara ikasteko laguntzak (Euskara Zerbitzua)
- 18-35 urte bitarteko gazteek etxebizitzak alokatzeko dirulaguntza (harrera bulegoa)
- Merkataritza-lokal baten alokairurako dirulaguntzak (harrera bulegoa)

NON ESKATZEN DIRA DIRULAGUNTZAK?

1. Aurrez aurre, udaletxean
2. Posta arruntaren bidez, udal-helbidean:
San Migel plaza 1
20271 IRURA
3. Internet bidez, webgunean.
Dirulaguntzak internet bidez eskatu ahal izateko, B@KQ txartela behar duzu.
<https://www.irura.eus/eu/laguntzak-diru-laguntzak>
eta IRURA APParen bidez, *Tramiteak* atalean egin daiteke eskaera.

B@KQ txartela

Txartel hau zure identitatea ziurtatzen duen sinadura elektronikoa da. Irurako Udalean bertan eska dezakezu, edota <https://www.izenpe.eus> helbidean.

Txartel honek, dirulaguntzak eskatzeko balio izateaz gain, beste erakundeekin tramite elektronikoak egiteko balio du: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritz, Osakidetza...

Elkarte edo entitateen kasuan, ziurtagiri digitalak izango lirateke.



Mendekotasuna duten pertsonak



BALORAZIOA

Herritarren autonomia-galera dela eta (fisikoa, psikikoa, adimenekoa, zentzumenekoa), mendekotasun egoeran eta laguntza beharrean dauden pertsonen egiten zaie balorazio hau. Eguneroko oinarrizko zereginetarako duten zailtasun maila baloratzen da.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA (EEL)

Herritarrak beren ingurunean, herrian, etxean duintasunez bizitzen jarraitzeko laguntza da hau. Eguneroko oinarrizko zereginak egin ezin dituztenentzat. Kostuaren zati bat familiak bere gain hartuko du.

ZAINTZARAKO LAGUNTZAK

- **FAMILIA INGURUNEAN ZAINTEKOA:** Mendekotasuna dutenen familiakoek, beraiekin bizi direnek eta beren zaintzaz arduratzen direnek izan dezaketen laguntza da hau. Formazio txiki bat ematen da eta egoeraren jarraipena egin ohi da.
- **LANGILE BAT KONTRATATZEKO LAGUNTZA:** Zaintzarako formakuntza duen persona bat kontratatzeagatik ematen den laguntza da. Langilea zuzenean kontrata daiteke edo enpresa baten bidez. Kasu horretan ere egoeraren jarraipena egiten da.
- **ZERBITZUARI LOTUTAKOA:** Laguntza hau trantsizio momentuetan ematen da. Hau da, mendeko pertsonak egoitza batean edo eguneko zentro batean sartzeko eskaera bideratuta duenean, baina plaza publiko baten zain dagoen bitartean, zentro pribatu batera jo behar duenean ematen da laguntza hau.



EGUNEKO ZENTROA

Mendekotasuna duen pertsonari egunean zehar arreta eskaintzen zaio eskualdeko zentroetan. Helburua da personak bere ingurunean bizitzen jarraitzea, eguneroko premiak erraztuz: bazkaria, osasun-azterketa, terapia okupazionala, podologia, ileapaindegia, arreta-zaintza, garbiketa...
Lo egitera etxera itzultzen da.

EGOITZA

Mendeko pertsonari ostatu, mantenu eta zaintza integral eta jarraitua ematen zaie eskualdeko egoitzetan.

ALDI BATERAKO EGONALDIAK

Etxean bizi den mendekoa denboraldi batean egoitza zerbitzuaz baliatzea litzateke, epe jakin batean etxean ezin duenean beharrezko zaintza jaso edota zaintzaileak oporrak egin behar dituzenean.

LAGUNTZA TEKNIKOAK

Mendeko pertsonak egunerokoan behar dituenak: ohe artikulatuak, dutxa jartzea, audifonoak etab.

SENDIAN PROGRAMA

Zaintzaileen beharrei bidea ematen dien programa da hau.

TELELAGUNTZA-BETION (TLL-BETION)

Bakarrik bizi diren edo ordu dezente bakarrik pasatzen dituzten adineko, desgaitu edo mendekoei larrialdi egoeran berehala laguntzeko zerbitzua da hau. Gailu elektronikoen baten bitartez egiten da. Premia egoeran abisuak aktibatzen dira: familia, medikua, ambulanzia...

APARKALEKURAKO TXARTELA

Diputazioaren aldeko txosten batekin eskuratu daiteke.

Desgaitasuna duten pertsonak



BALORAZIOA

Desgaitasunaren balorazioa egiten da, eguneroko zereginetarako zenbateko ezintasuna duen zehazten duena:

1. Desgaitasun maila (%33tik gora, zenbait prestazio eta zerbitzutarako eskubidea)
2. Beste pertsona baten beharra.
3. Garraio publiko kolektiboa erabiltzeko zailtasuna (mugikortasun baremoa).

ORIENTAZIOA

Interesatuak dituen premien araberako baliabide espezializatuena: egoitza, enplegua, eguneko arreta, laguntza goiztiarra...



APARKALEKURAKO TXARTELA

Desgaitasuna dutenentzat

LAGUNTZA EKONOMIKOAK

- Kotizatu gabekoen pentsioa: %65 edo gehiagoko desgaitasuna eta elkarbitzita unitatearen diru-sarreraren arabera.
- Gizarte ongizateko fondoa: %45 edo gehiagoko desgaitasuna eta elkarbitzita unitatearen diru-sarreraren arabera.

ETXEAN EDO FAMILIA GIROAN MANTENTZEKO LAGUNTZAK

EEL, TLL-BETION, Eguneko Zentroa, laguntza teknikoak.

HOBARIAK

Irurako udal-ekintzetan parte hartzerakoan.

LAGUNTZAK IBILGAILUEN UDAL-ZERGARAKO

Desgaitasunaren arabera.

Familiak, haurrak eta nerabeak



HAUR ETA NERABEEN BABESA

Premia guztiak beteak ez daudenean, egoerak baloratzen dira eta, zailtasun edo larritasun mailaren arabera, laguntzak jartzen dira martxan: esku-hartzeak, hezitzaileak... koordinatuta. Larritasun maila altua bada, Foru Aldundira bideratzen da.

UDAL-LAGUNTZAK

1. Familia ugariak hobariak dituzte:
 - OHZ (IBI)
 - UDA AISIALDIA
2. Desgaitasuna duten seme-alabek tratamenduren baterako laguntza behar badute.
3. Egoera ekonomikoaren araberako laguntzen atalean (6. orrialdean) zehaztutako laguntzak (Gizarte larrialdietarako laguntzak, elikagaien bankua...).

Hirugarren Adina

ZAHARREN BILTOKIA

Irurako Udalak udal-baliabideak euren eskura jartzen ditu antolatzen diren ekintzetarako.

KE DETEKTAGAILUAK

Irurako Udalak, 75 urtez gorako herritarren etxeetan, ke detektagailuak jartzen ari da, suteak ekiditeko.

IRURA LAGUNKOIA

Irura herri lagunkoien sarean dago, eta herrian egon daitezkeen zailtasunak gainditzeko eta erraztasunak bideratzeko neurriak hartzen ari da Udala. Adibidez, gida hau sortzeko eskaera.

HOBARIA UDAL-EKINTZETAN

Udalak antolatutako kirol eta kultur ekintzetan hobaria



Genero indarkeria jasaten duten emakumeak

Udaletik egoera hauei arreta berezia jartzen zaie, jarraipena egiten zaie eta bestelako baliabideak bideratzen zaizkie. Tolosaldean gaia lantzen ari gara eta bertako baliabideak martxan jarriko ditugu.



LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Genero indarkeria edo sexu-erasoa pairatu duten emakumeentzako laguntza da. Erasoa eragin duen gizonak ere jaso dezake laguntza psikologikoa.

LAGUNTZA JURIDIKOA

Doako kontsulta juridikoa da, gai hauetan orientatzeko: banantze-prozesua, umeen zaintza, ondarea, ordainezko pentsioa, mantenu-pentsioa...

LAGUNTZA EKONOMIKOA

Egoera ekonomiko ahulean dauden emakumeentzako dirulaguntza da hau.

LARRIALDIKO ETXEBIZITZA

Tratu txarrak, genero-indarkeria, sexu-erasoa... pairatu dituzten emakumeek, bizilekua aldatzeko beharra baldin badute, aldi baterako bizitokia izan dezakete seme-alabekin batera (izango balitu).

Migrazioa

Tolosaldea Garatzen Garapen agentziak Migrazio eta Aniztasun saila du.

HARRERA PROGRAMAK

Guretzako: Tolosaldeko jatorri ezberdineko emakumeei zuzendutako harrera eta bizitzarako gaitasunak ikasteko gunea.

Gazteak ongi etorri: Tolosaldeko herri edo ikastetxe batera iristen diren 6-16 urte bitarteko haur eta gazteei harrera ona egiteko eskolaz kanpoko gunea da. Helburua gazteek elkarrekin ongi pasatzea da. Era berean, norberaren nortasuna errespetatzea eta euskal kulturara gerturatzea.

Euskara: Euskaraz hitz egiteko hiztegitxoak hainbat hizkuntzatan.

Auzoko: Tolosaldean, euskara ikasteko aukera eman ohi duen gunea anitza.

Telefonoa: 646 05 70 80
migrazioa@tolosaldea.eus



Elkarte sozialak eta nazioarteko lankidetzak

ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK

Udalak elkarten dirulaguntza eskaerak jaso eta aztertzen ditu, eta herrian izan dezaketen eraginaren arabera ematen die dirulaguntza.

NAZIOARTEKO LANKIDETZA

- **EUSKAL FONDOA.** Irurako Udala partaide da. Urtero proiektu batean parte hartzen du.
- **OPORRAK BAKEAN** Tolosaldean antolatzen den haur sahararrentzako udako programa honetan parte hartzen du Udalak.